

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA BEKAK BADITU IRABAZLEAK

Alkizako Udalak herriko beste hainbat eragilerekin batera sustatzen duen Sormenaren Kabia beka eskuratu dute Uxue Juárez Gaztelu eta Ada Garrués Paularena artista iruindarrek. Hiruna asteko egonaldiak egingo dituzte Alkizan, iraila eta azaroa bitartean, bakoitzak bere proiektua garatzeko.

Alkizako Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, artistek hausnartu, sortu eta lan egiteko proiektu bat sortu zuen 2018n: Sormenaren Kabia beka. Egitasmo horrekin lortu nahi dute Alkiza landa-eremuko sorgune moduan erreferente izatea eta arte-sorkuntza hirietatik deszentralizatzea.

Aurreko ekitaldien moduan, bi beka eman dira. Mila euroko diru-saria jasoko du hautako proiektu bakoitzak eta hiru astez Alkizan euren proiektuak garatzeko aukera izango dute Lete Apartamentuetan.

Antolakuntzak diziplina ezberdinetako profesionalez osatutako epaimahai bat osatzen du urtero. Orain arte Koldobika Jauregi eskultore alkizarra epaimahaikideetako bat eta bekaren zutabeetako bat izan da. Tamalez, baina, Jauregi ustekabeen hil da eta bere heriotzarekin airean geratu dira Alkizako hainbat eta hainbat ekimen eta proiektu. Galera izugarria den arren, eskultoreak hala nahiko zuelakoan, Alkizako Udalak erabaki du bekarekin aurrera egitea.

Gauzak horrela, antolakuntzak ezinbestean egokitu behar izan du 2024ko Sormenaren Kabia bekarako epaimahaia. Hurrengo kideak izan dira edizio honetako epaileak:

- Idoia Zabaleta**: Azala sorkuntza espazioko zuzendari artistikoa.
- Miriam Loidi**: 2023ko Sormenaren Kabia beka irabazi zuen artistetako bat.
- Txiki Keixeta**: artista.
- Juan Kruz Igerabide**: idazlea.

Aurtengo oinarrietan jasota dagoen moduan, proiektuak epaitzerakoan irizpide hauek izan dira aintzat hartu dituztenak:

- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Bideragarritasuna eta udal azpiegituren lan espazioetara egokitzea.
- Berrikuntza eta originaltasuna.
- Alkizako herriari egiten dion ekarpena.
- Jasangarritasuna bermatzea.
- Hautagaiak proiektuan parte hartzeko azaldu duen interesa.

Proposamen guztiak aztertu ondoren, epaimahaiak erabaki du aurtengo hautatuak Uxue Juárez Gaztelu eta Ada Garrués Paularena izatea.

Artistak iraila eta abendua bitartean Alkizan izango dira eta urtea amaitu aurretik ezagutuko ditugu sortzaile iruindarren lanak.



Miriam Loidi, 2023ko beka eskuratu zuen artistetako bat eta aurtengo epaimahaikidea
Argazkia: Sormenaren Kabia beka

UXUE JUÁREZ GAZTELU

Filologia Hispanikoko lizentziaduna da, eta Hizkuntza eta Literaturako irakasle gisa lan egiten du Iruñeko institutu batean. Poesia, testu hibridoak eta haurrentzako ipuinak idazten ditu. *Cosas que crujen* (Poesiako Injuve Saria, 2010), *Así, Berlín* (Amargord, 2014), *En el principio era la nieve* (Baile del Sol, 2015) eta *Bajo la lengua; bichos* (Stendhal, 2015) poesia liburuak eman ditu argitara, baita *Casi ciervos* (Greylock argitaletxea, 2019) liburu-obra ere.

Maite du ikerketa humanistikoa eta literatura uztartzea, diziplina desberdinen artean zubiak eraikitzea eta gaztetxoekin mundua esploratzea eta sareak eraikitzea. 2020an idatzi zuen haur literaturako lehen lana, *El viaje de Castor/ Kastoreren bidaiak/ El viatge d'en Castor* (Bookolia) liburu bilduma eta 2022an *Kai Handiak/ El Gran Muelle/ Kai Handiak* (Erein) gazteentzako elaberria. 2023an *Silkeren jauregia/ El palacio de la Silke/ El palacio de Silke* (A Buen Paso) liburu albuma kaleratu berri du eta 2024ko udazkenean *Otto eta Pintxo* (Denonartean)/ *Pincho y Otto/ Otto y Punxa* (A Buen Paso) argitaratuko du.

Egonaldia baliatu nahi du *Beleburu* idazten jarraitzeko, ezezaguna (munstroak, heriotza, suizidioa, basoaren barrualdean isildutakoak) eta animalia basatiak, piztiak, bestiarioak, eta naturaren behaketa (herbarioak, naturan eginiko espedizioen behaketa-koadernoak, edo David George Haskell-en *En un metro de bosque* burututako behaketak) erdigunean jarriko dituen bi ildoko proiektu bat osatzeko, ildo artistikoa alde batetik eta ildo pedagogikoa bestetik landuko dituena.

Alkizako parajeak, Beleburu mendia, Hernio-Gazumeko hainbat naturagune eta bere biztanleriaren ahotsak eta lexikoa izango dira egonaldiko akuiluak.

Idea da artefaktu politiko eta lirikoa izango den belebururi abiatzea ematea Alkizan. Erakusteko eta ikertzeko gizakiak bere ingurunearekin duen erlazioa: ikusteko gure erabakien eragina bai erreka baten ibilbidean zein txorien ala sorgin-orratzen hegaldian, ikertzeko nola desmemoria lurraldeari inposatzen zaion, beste esperientzia batzuen aukera ezabatuz. Eta nola, paisaiak ere bere memoria propioa duen eta, azkenean, gure presentzia bera ere gaindituko, gainditzen duen.

artistentzako egonaldi honetan ikertutakoaren eta sortutakoaren harira idazkera koaderno eta artista liburu bat garatuko ditu eta horretan oinarritutako Unitate Didaktiko bat.



Uxue Juárez Gaztelu
Argazkia: Ione Arzoz

ADA GARRUÉS PAULARENA

Ada Garrués Paularena margolaritzan espezializatutako diziplina anitzeko artista iruindarra da. Txiki-txikitatik sorkuntza eta artearekiko interes handia erakutsi du, tokiko akademia txikietan hasiz eta ondoren bere prestakuntza Iruñeko Arte Eskolan eta Euskal Herriko Unibertsitatean formalizatuz, non Arte Graduko ikasketak eta Pinturako Master bat egin zituen. Azken urteotan, prestakuntza akademikoa eta hainbat arte-egoitzatan eta erakusketatan parte hartzea uztartu ditu. Esperientzia horiek aukera eman diote beste artista batzuk ezagutzeko, zeintzuekin sormen-komunitate aberats bat partekatzeko zortea izan duen. Bere ibilbidean eta ikerketa artistikoan zehar, bere burua ezagutzeko espazio aproposa aurkitu du artean, lantzen dituen obren beharrei zein bere buruari erantzuten ikasiz, munduari nola aurkezten zaion eta nola bizi den ikasiz.

Bizitze eta ibiltze horretan, azken bi urte hauetan naturan ibiltzeak lagundu dio, eta hortik irudiak, testurak, koloreak... jasotzen ditu. Lan-eremua bere gauzen lekutzat hartzen du. Hori dela eta, Sormenaren Kabia beka aukera polita da ezagutzen ez duen paisaia batean bere lanetan ikuspegi puntual bat sortzeko.

Egonaldian zehar paisaiaren eta fisikotasunaren ideian zentratutako ekoizpen piktorikoaren ikerketarekin jarraitu nahi du. Euskarri gisa inprimatu gabeko oihala erabiltzen du, irudiaren horizontaltasuna materialtasunetik birpentsatuz. Geruzekin eta gardenkiekin lan egiteko aukera ematen dioten materialak erabiltzen ditu, sakontasuna eta giroa sortzeko, beste espazio batzuetarako leihoak sortuz.

Proiektu honekin, Alkizako inguruak bere sormen prozesuan nola eragiten duen eta eragin horrek bere margolanean zer arrasto utzi dezakeen arakatzea du helburu. Egonaldian, Alkizako paisaia islatzen duten hainbat lan garatu nahi ditu, baita ingurunearekin duen lotura pertsonala ere.



Ada Garrués Paularena
Argazkia: Ada Garrués Paularena